

5/BATZARRA/2007

## **UDALBATZAR BERRIAREN ERAKETA BILERA, 07.05.27 DATAKO HAUTESKUNDEETATIK ERATORRIA**

**Data:** Gaintza, 2007ko ekainaren 16a

**Ordua:** eguerdiko 12:30etan

**Lekua:** Gaintzako Udalaren Bilera Aretoan

**Bilera mota:** Osoko Ez Ohiko Bilkura Berezia.

### **Aztergaien zerrenda:**

#### **BAKARRA.- UDALBATZA BERRIAREN ERAKETA ETA ALKATEAREN AUKERAKETA.**

Hauteskunde Erregimena arautzen duen, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera, 2007ko maiatzaren 27ko hauteskunde egunetik zenbatzen hasitako hogeigarren egun honetan Udalbatza berria eratzeko bilera deialdia egingen da, segidan azaltzen diren pertsonak, aipatu den leku eta datan batzarraratzen direlarik. Bildutako zinegotziek, eratuko den Udalbatzako gehiengo osoa izanik, hau da legez eta egitez Udalbatzaren gehiengo osoa direlako, eraketa bilkura baliozkoa da.

#### **ETORRITAKO ZINEGOTZIAK:**

Jose Ignacio Irastorza Garmendia (12:30)

Ignacio J. Garmendia Arruabarrena (12:30)

Mikel Garmendia Sukia (12:30)

Santiago F. Garmendia Gorostidi (12:30)

#### **IDAZKARIA:**

Iñaki Sainz Paredes

Batzarreratu ez den zinegotzi bakarra M<sup>a</sup> Rosario (Maixa) Olano Gorostidi izan da, Daniel Olano bere aita hil egin delako, beraz, zinegotzi honek hurrengo Udalbatzaren bileran karguaren jabetza hartuko du. Bildutako guztiek, dolumina eta elkartasuna azaldu nahi diote udalbatzarkideari eta "Diario Vasco" egunkarian eskela argitaratzea adosten dute.

#### **PUNTU BAKARRA.- UDALBATZA BERRIAREN ERAKETA ETA ALKATE LEHENDAKARIAREN HAUTAKETA.-**

5/85 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundeen Erregimen Orokorra arautzen duena, 195 eta hurrengo artikuluetan xedatutako prozedurari jarraituz Udalbatzaren eraketa bilera honetan, aurreneko gauza ADIN MAHAIA osatzea da.

Adineko mahaia egintza honetan daudenen arteko zinegotzi gazteenak eta edadetuenak osatzen dute, udaletxeko Idazkariarekin batera. Zinegotzi zaharrenak, mahai honen lehendakaritza izango du.

Hautagaien urtebetetze egunen arabera, mahaiaren osaketa jarraikoa gertatzen da:

LEHENDAKARIA: JOSE IGNACIO IRASTORZA GARMENDIA, 48 urte, zinegotzirik zaharrena delako.

MAHAIKIDEA: MIKEL GARMENDIA SUQUIA, 38 urte, zinegotzirik gazteena delako.

IDAZKARIA: Iñaki Sainz Paredes, udalaren Idazkaria delako.

Idazkariak eraketa bilera honen prozedura azaltzen du eta eman beharreko pausoak laburbiltzen ditu.

Argibide hauei jarraiki mahaiak zinegotzien hautatu-egiaztagiriak (kredentzialak) Tokiko Hauteskunde Batzordeak luzatutakoak, aztertzen dituzte. Denak baliozkoak direlakoan onartu egiten dira.

Gero, hautatuek Udalaren Idazkaritza Orokorrari utzitako bateraezintasun eta ezgaitasun zioen deklarazio agiriak eta ondare ondasun eta ihardueren gaineko deklarazio agiriak aztertzen dira. Inongo oztoporik aurkitzen ez denez Mahaiak Udalbatza berria eratutzat deklaratu du, izanik Udalbatza berri honen kideak:

- 1.- JOSE IGNACIO IRASTORZA GARMENDIA (Gaintzako Herritarrak)
- 2.- IGNACIO J. GARMENDIA ARRUABARRENA (Gaintzako Herritarrak).
- 3.- MIKEL GARMENDIA SUQUIA (Gaintzako Herritarrak).
- 4.- SANTIAGO F. GARMENDIA GOROSTIDI (Gaintzako Herritarrak).

Jarraian onartutako eta indarrean dagoen araudiaren arabera kargua beteko dutela adierazi eta karguaren jabetza guztiz hartzeko legeek galdatutako gainontzeko izapidak betetzen dira.

Honenbestez Udalbatza berria guztiz eratuta geratzen da, ondoren, hurrengo pausoa ALKATEAREN HAUTAKETA dute bildutakoek. Prozedura aipatu 5/85 Lege Organikoko 196. artikuluan xedatutakoa da, 100 eta 250 biztanleen arteko herrietan zinegotzi guztiak dira hautagai, zinegotziren batek bozketan gehiengo osoa lortuz gero, bera bihurtuko da Alkate, halakorik ez balego herritarren boto kopururik handiena jaso zuen zinegotzia zuzenean Alkate bezala hautatutzat joko da.

Bildutako guztiek Ignacio Javier Garmendia Arruabarrenaren aldeko botoa ematen dute.

Beraz, honako bozketaren emaitza gertatzen da:

- Emandako botoak : lau
- Baliozko botoak: lau

- Boto txuriak: bat ere ez
- Baliogabekoak: bat ere ez

Emandako baliozko botoen arabera honako emaitza gertatzen da:

- Ignacio Javier Garmendia Arruabarrenaren aldeko botoak : lau

Hortaz, zinegotzien kopurua bostekoa izanik eta beraz gehiengo osoa, hiru botukoa, Ignacio Javier Garmendia Arruabarrenak, horiek gainditu dituenaz, Gaintzako Alkate-Lehendakari izendatzen da.

Alkate berriak kargua onartzen du Udalbatzarraren aurrean eta Alkatetza postuaren jabetza hartzen du, legeek galdatutako prozeduraren arabera.

Alkate-Lehendakariak bileraren Lehendakaritza hartu eta adineko mahaiari eskerrak ematen dio, bukatu berri duen lanagatik.

Bukatzeko, postua utzi duen Alkateak, Alkate berriari fondoekontaketako arkeoa eta udal ondasunen eguneratutako inbentarioa agertzen dizkio, aurreko korporazioko kideen sinadurarekin, Alkate berriak, eta neronek idazkariak, agiri hauek sinatzen ditugularik.

Eta honela bada, bilera honen helburua beteta, Alkateak bilera amaitzea erabaki zuen, hamabiak eta berrogeita hamar minutu zirenean.

O.e.  
Alkateak

Idazkariak

Sin. Ignacio J. Garmendia